

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MENDI HARAN UR PARTZUERGOA

Hasierako onespena ematea 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari

Mendi Haran Ur Partzuergoak, 2020ko otsailaren 6ko batzar orokorrean, erabaki zuen hasierako onespena ematea erakundearen 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorrari.

Arabako lurralde historikoaren toki erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikulua xedatutakoari jarraituz, jendaurrean erakusgai ipintzen da erabaki horren dosierra; hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita. Epe horren barruan, interesatuek dosierra aztertu ahal izango dute, eta batzar orokorrari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Epe horren barruan ez bada erreklamaziorik bat ere aurkezten behin betiko onartutzat joko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da argitara hau.

Pobes, 2020ko otsailaren 7a

Lehendakaria

JOSE MARÍA MARTIODA ETXEANDIA